

## **Black is beltza.mp3**

1965eko urrian gaude. New Yorkeko Bosgarren Hiribidean desfilatzeko gonbita jaso du Iruñeko San Ferminetako erraldaien konpartsak. Ezingo dute, ordea, denek desfilatu: arrazagatiko bereizkeria dela eta, agintari iparramerikarrek debekatu egin dute erraldoi beltzen parte-hartzea. Gertaera historiko horretatik abiatzen da Black is Beltza, erraldoi horietako bat garraiatzeko ardura zuen Manex pertsonaiaren larruan sartuta. Ezustekoz betetako bidaiari luze batean murgilduko da Manex, eta bertatik bertara ezagutuko ditu 1960ko hamarkada ulertzeko giltzarri diren hainbat gertaera.